

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

ParkFinder proiektua hirietako aparkaleku-arazoak konpontzeko aplikazio digital bat da, hiri handietan aparkalekua aurkitzea zail egiten den testuinguruan. Aplikazioak erabiltzaileei aparkaleku libreak denbora errealean bilatzen laguntzen die, kolore-sistema intuitibo baten bidez (berdea libreak, gorria okupatuak, eta urdina irisgarritasun beharretarako). Interfaze erraz eta intuitiboari esker, erabiltzaileek beren ibilbideak modu azkar eta eraginkorrean planifikatu ahal izango dituzte. Gainera, aparkalekuaren tamainari eta erabiltzaileen helmugetatik gertu dauden leku eta negozio garrantzitsuei buruzko informazio gehigarriaria eskaintzen du, erabiltzailearen esperientzia hobetuz.

Proiektua, hasiera batean, Bilboko metropoli-eremura zuzenduta dago, Eusko Jaurlaritzaren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa bilatuz, jasangarritasuna eta bizi-kalitatea sustatzeko helburuarekin. Aurrera eginez gero, aplikazioa Espainiako eta Europako beste hiri metropolietan zabaltzea aurreikusten da, nazioarteko mugikortasun eta jasangarritasun soluzioetan aitzindari izateko. ParkFinder-ek ingurumen-inpaktua murriztea eta hiri-mugikortasuna hobetzea du helburu, hiriko trafikoa gutxituz eta garraio publikoaren erabilera sustatuz.